## XURRUMURRUAK

Gaueko amets horretan izan zara
edonongo busean ondo jantzita
Hendaia eta Irun artean mugaal da?
Leihatilan zegoen neska harek...
berotzen bainau,

Behelainoan
XURRUMURRUAK
sortzen dira.

Garaiz heldu nintzela pentsatzen nuen
horrelako gauzetan zalantzarik ez
Egun luzeak pasatzen ari dira,
geroz eta gehiago nere bihotza...
tristetzen ari da,

Behelainoan
XURRUMURRUAK
sortzen dira.

Mundu hau ez da inoren inguruan jira
Zenbat pertsonak barre egiten dute
bakoitzak hartu duen bideagatik
Guztiontzat hobe izango litzateke...
bide bat hartzea.

Behelainoan
XURRUMURRUAK
sortzen dira.

## ARRATS ILUNA

Gela ilunak
taberna zaharrak,
dira gure
alternatibak,

Gau baten
misterioa,
sentimentuetan
datza.

Maitasuna
oreixa erdian,
garestiegi
bide hura,

luzaroko
izango da
garraztasuna
hutsa.

## UDAKO AZKEN EULIA

Esku artean
zerbait mugitzen
euli itsusi bat
dardara hasten

Neure buruan
milaka susmo
nahasten dira
hiltzeko prest nago

Buruz buru
izan den denboran
pasatu dira
garai onenak

Eskuen hutsak
"baktol" usaina
euli honen
azken kanpaina.

Esku artean
euli itsusi bat
Milaka susmo
nahasten dira

kristalen kontra
armiarmietan
Zenbat aldiz
ihes, kuttaua

Eta negua
heltzen dela
Udako azken
eulia.



## PARADISURANTZ

Dorreak eta hormak
paradisurantz.
Pinudien artean
sorginen atzean.

Hegazkin bat harturik
lurreratzekoan.
Bide estuak dira
ilunpe honetan.

Ilargiak pizten du
maitasun bizia.

Oso polita zaude
alkondara horretaz.

Dorreak eta hormak
paradisurantz.

## KAJOI BEREZIA

Torre altuetara jaso dut burua
etorkizunik bazegoen
etorkizunen bat bazegoen

Lur arrotzetan beste etxeak
susmatu ditut.

Batzuetan ere denborazko mintzetan
zulo bat – atzekoz aurrera –
sartua ibili naiz

Une bat
Leku bat
Tarte bat
Espazio bat

Oihan ihitsutik itzuli gara,
hainbat gerra begiztatuz...

## FORMULA BAT

Beti dago
arrazoiren bat,
gure bizitza
arrunta
alde batera
ez uzteko.

Formula bat
topa nahiean
horrenbeste
jende bildu da
erantzun
garbirik gabe

Nik esan dudanari
kasorik ez
bakarrik dakite
jakintsuak.

## SZINKS

Szinks, zure
aurpegi erdian,
topatzen nuen
arazoen erantzuna
Szinks.

Egunero
edozein lekutan,
zu gabe
argirik gabe,
Szinks.

Kalean
eta etxean,
zure finuraz,
gogoratzen naiz.